A 1394



Bidebieta

# Kontame-ren ale berria

Larraitz Garmendia (Tfnoa.: 391267)



Kontame aldizkariaren 7. alean auzo inguruko gai asko jorratu dira.

Kontame aldizkariak hiruhilabete honetako alea kaleratu du, zazpigarrena. Oraingoan Kontadores Gazteguneko arduradunek beste ikuspuntu bat eman nahi izan diote aldizkariari. Gertuko gai gehiago topa daitezke bertan, eta Donostia eta inguruetan gertatzen direnak ere landu dira, tatuaiak, Saharauitarrak eta abar. Horrezaz gain, kultur gaiei ere lekua eman zaie ale honetan, zinema, komikia, ipuinak, literatura...

Zenbaki berri honen euskarria paper birziklatua izan da, aldizkariak bere sorreratik finkatu zituen helburuekin.

Martxoko alerako jarri da martxan gazteen lan taldea, dena den oraindik ale berri honetan parte hartzeko aukera zabaltzen zaio edonori. Horretarako eskutitzak Kontame 192P.K., 20.110 Pasaia, helbidera bidali daitezke.

Altza

# Gazteentzat denborapasak

Altzako Gaztelekuak ekintza ugari antolatu ditu urtarrilaren azken asterako eta datorren otsailerako. Hauen artean azpimarra daitezke 23rako antolatu den mahai-tenis erakustaldia, bihar urtarrilak 24 jokatuko den 3x3 saskibaloi txapelketa eta ostiralean, hilak 29, ikus ahal izango den filmea. Horrezaz gain, urtarrilaren 30etik aurrera mahai tenisean jokatzen ikasteko ikastaroa antolatu da. Izena emateko epea 29an bukatuko da. Urtarrilaren 31n tute txapelketa ere izango da Gaztelekuan.

